



Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa
& Beatriz Fernández (ed.). 2022. Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV) (3. arg.).

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

[Interneten eskuragarri <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?h=eu>].

ISBN: 978-84-1319-456-1.

data: 2024-11-05

vii. Konplementatzailea

vii.1. Aginte perpausen ezeztapena: *ez zaitezela joan* (v *ez zaitez joan*)

Egilea: Itziar Mendizabal

Nola aipatu: Mendizabal, Itziar. (2022). Aginte perpausen ezeztapena: *ez zaitezela joan* (v *ez zaitez joan*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=7&e=58&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditza, agintera, ezeztapena, konplementatzailea, subjuntiboa

Deskribapena

Euskaraz agintera adierazteko bi modu ditugu: (i) *b-* aurrizkia aditzaren erroari atxikiz (1a) (1c) edo (ii) orainaldiko subjuntibo formari *-(e)la* konplementatzailea gehituz (1b) (1d) (Azkue 1925; Hualde eta Ortiz de Urbina 2003; Oyharçabal 2000; de Rijk 2008). Bi kasuotan adizkia sintetikoa *-(1a)* eta *(1b)-* edo analitikoa *-(1c)* eta *(1d)-* izan daiteke:

					(Zubizarreta [de Cervantes, 1605], 2005: 26)
(1a)	Betor	Andres	nirekin	etxera	
	3ABS.IMP.ettor	Andres	ni.SOC	etxe.ALL	
(1b)	Doala		infernuko	zulora	(Zubizarreta [Mahfuz, 1947], 2006: 213)
	3ABS.joan.(E)LA		infernuko.GEN	zulo.ALL	
(1c)	Laster	ettor	bedi		(Larzabal, 1952: 8)
	laster	ettor	3BS.IMP.*edin		
(1d)	Ongi	joan	dadila	gaurko	eguna
	ongi	joan	3ABS.*edin.(E)LA	gaur.GEN	egun.ABS
					(Apalauza [Drakulic, 1999], 2018: 51)

Adizki analitikoek dagokienez, subjektuaren arabera aldatzen da forma: subjektua lehen pertsonakoa denean, *-(e)n* konplementatzailea erabili ohi da, baina *-(e)la* ere erabil daiteke (Goenaga 1997; Orbegozo 2017); eta hirugarren pertsonakoa bada, subjuntiboari *-(e)la* konplementatzailea gaineratzen zaio. Bigarren pertsonako subjektuekin, berriz, ez da konplementatzailerik gehitzen (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003; Oyharçabal 2000). Ezezko aginduetan ere, oro har, eredu bera aurkitzen dugu, hots, subjektutzat bigarren pertsona duten adizki analitikoak ezeztatzean, ez da konplementatzailerik gaineratzen (2). Hizkera batzuetan, ordea, 'hautazkoa' edo 'desirazkoa' deritzenak (Orbegozo 2017) erabiltzen dira aginteraren ordeaz; hau da, *-(e)la* konplementatzailea gehitzen zaio adizkiari (3), subjektua lehen edo hirugarren pertsonakoa denean gertatzen den bezala:

(2)	Ez	zaitez	joan
	ez	2ABS.edin.IMP	joan
(3)	Ez	zaitezela	joan
	ez	2ABS.edin.ELA	joan

Badirudi askok *-(e)la* gabeko (2) eta *-(e)la* atzizkidun (3) aginte perpausak ez dituztela modu berean interpretatzen: askorentzat lehena benetako agindua edo debekua da; bigarrenak, berriz, desira edo erregu kutsua du (Inchauspe 1858; Lafitte 1944; Goenaga 1997; Orbegozo 2017). Nolanahi ere den, soilik *-(e)la* atzizkidun aginte perpausak erabiltzen dituztenentzat, pentsa liteke egitura bakarrak bi esanahien arteko ambiguetate izango duela, ezeztapena aditz jokatuaren bidez egiteko bide bakarra hori baitute (Orbegozo 2017; de Rijk 2008).

Banaketa dialektala

Badirudi aginte perpausaren ezeztapenerako 'hautazko' edo 'desirazko' egitura *-(e)la* atzizkidun egitura, alegia) erabiltzea ekialdeko euskalkien ezaugarria dela (Hualde eta Ortiz de Urbina 2003; Orbegozo 2017; de Rijk 2008). Hala eta guztiz ere, Orbegozoren (2017) hitzetan, bigarren pertsona subjektutzat duten ezezko perpausetan *-(e)la* atzizkia erabiltzea ez da ekialdean soilik gertatzen, mendebaldean eta erdialdean ere jasotzen direlako. Hala eta guztiz ere, aurretik aipatu dudan bezala, semantikoki izan dezaketen desberdintasuna aintzat hartu beharrekoa da.

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean hizkera eredu hau (3) euskara nafarrean (Arbizun, Baztango Arizkunen, Goizuetan, Erroibarko Mezkitzen eta Orbaizetan), nafar-lapurtarrean (Oragarren eta Ziburun) eta zuberotarrean (Urđiñarben) jaso da. Ondorioz, lortutako datuen arabera, badirudi Zuazok (2014) ekialdekoztat duen eremutik zabaldu eta euskara nafarrean hedatu dela ezaugarri hau; baita euskara nafar-lapurtarreko hizkera kostatarrean ere. Hala eta guztiz ere, interesgarria izango litzateke jakitea ea ezaugarri hau lekukotzen den eremuetan (ekialdetik kanpo kokatzen direnetan, bereiziki) *-(e)la* atzizkidun aginte perpausa besterik ez duten onartzen edota bi egiturak erabiltzen dituzten testuinguruaren arabera.

Eztabaida teorikoa

Egile batzuen ustez, atzizkia erabiltzen duten aginte perpausak menpeko perpausak dira, nahiz eta perpaus nagusia ez den ageri (Goenaga 1997; Euskaltzaindia 1999). Ideia hori defendatzeko Euskaltzaindiak (1994, 1999) hiru arrazoi ematen ditu. Lehenik, aginterazko egitura atzizkidunean ezin da alokutiborik gaineratu, menpeko perpausetan bezala (*ez hadi(*la) joan*). Bigarrenik, *-(e)la* (edo subjektua lehen pertsonakoa den kasuan *-(e)n*) konplementatzailea dago; bestelako menpeko perpausetan bezalaxe (esate baterako, [*liburua erosi duela*] *esan digu*). Eta azkenik, perpaus juntatuek ez bezala, aginterazko perpaus atzizkiduna lekuz alda daiteke esanahia aldatu gabe. Lekuz aldatu ahal izatea adierazgarria da. Izan ere, juntadura bidez lotutako perpausetan esanahia alda daiteke ordenaren arabera (esate baterako, ez da gauza bera *gutuna idatzi nion eta haserretu egin zen* edo *haserretu egin zen eta gutuna idatzi nion* esatea). Halakorik ez da gertatzen menpekoetan; berdin interpretatu ohi ditugu *ez zaitzezela joan eskatu nahi dizut* eta *eskatu nahi dizut ez zaitzezela joan*.

Orbegozoren (2017) hitzetan, konplementatzailearen erabilera benetako ezezko aginte perpausik ez izatearekin lotua egon liteke. Izan ere, Postma eta Van der Wurff-ek (2007) ondorioztatu zuten, perpaus barruko ezeztapen partikula anaforikoa (ingelesaren kasuan *no*) eta perpausa bera ezeztatzeko partikula (ingelesaren kasuan *not*) bera duten hizkuntzek subjuntiboa bezalako estrategietara jo behar dute, ez baitute benetako ezezko aginte perpausik. Horri lotuta, mendebaldeko euskararen, 1400 eta 1600 urteen artean *ez* beharrean *ze* erabiltzen zen aginterako ezeztapen partikula gisa (Lakarra eta Mounole 2015: 441); *ze* eta *ez* bereizten zituzten eta, ondorioz, benetako ezezko aginte perpausa bazutela pentsa liteke. Ekialdean, berriz, *ez* partikula besterik ez zuten, *-(e)la* konplementatzailea

erabili beharra zuten, estrategia osagarri batera jotzea ezinbestekoa zutelako (Orbegozo 2017).

Aipamenak

- Azkue, Resurrección Maria. 1925. *Morfología Vasca*. Bilbao: Euskaltzaindia. [Berrargitalpena 1969, Bilbao: LGEV, 3 ale].
- de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- Euskaltzaindia. 1994. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak IV. Juntagailuak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1999. *Euskal gramatika. Lehen urratsak - V. Mendeko perpausak I*. Bilbo: Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]
- Hualde, José Ignacio and Jon Ortiz de Urbina (eds.). 2003. *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Inchauspe. 1858. *Le verb basque*. Baiona-Paris: Imprimerie de Veuve Lamaignère-Benjamin Duprat. [Reprinted in 1979. Donostia: Hordago]
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]
- Lakarra, Joseba Andoni and Céline Mounole. Argitaratzeko. *Euskara Arkaikoa*. J. Gorrochategui, I. Igartua eta J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*. 345-468. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Orbegozo, Itziar. 2017. «Zatoz! Agindua Da! Euskal aginteraren azterketa formal baterako lehen urratsak». *Fontes Linguae Vasconum*, (123), 87-114.
- Oyharçabal, Beñat. 2000. «Note à propos des formes jussives préfixées *erb-* du basque». *Lapurdum*, 5: 225-235.
- Postma Gertjan eta Wim van der Wurff. 2007. «How to say *no* and *don't*: Negative imperatives in Romance and Germanic». W. Van der Wurff (ed.), *Imperative clauses in generative grammar* (205-249.orr). John Benjamins Publishing Company.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

vii.2. Partitiboa erlatibo aposiziozkoetan aurrekaria mugagabea denean: *-ik* (v *-a*)

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). Partitiboa erlatibo aposiziozkoetan aurrekaria mugagabea denean: *-ik* (v *-a*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariantan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=7&e=64&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aposiziozko erlatiboak, erlatibizatzailea, erlatiboak, menderakuntza, partitiboa

Deskribapena

22. kapituluan ikusi dugun bezala, partitiboa baiezko perpausetan ager daiteke balio enfatikoarekin, izen sintagmaren amaieran adjektibo bat dagoenean. Ezaugarri honetan izen sintagmaren amaierako beste modifikatzaile bati erreparatuko diogu, perpaus erlatibo aposiziozkoei hain zuzen.

Euskaraz perpaus erlatiboak aitzindari den –hots, perpaus erlatiboak modifikatzen duen– izenaren aurretik agertu ohi dira. (1) perpausean, adibidez, *ona zen* perpaus erlatiboak *neskatxa* izen sintagma du aitzindari gisa.

(1)	[Ona zen]	neskatxa	etorri	zen
	ona zen.EN	neskatxa.ABS	etorri	zen

Alabaina, badaude aitzindari den izenaren ostean agertzen diren perpaus erlatiboak ere, de Rijkek (1972: 167) *pseudo-extraposed relatives* deitzen dituenak. Aposizioan dauden perpaus erlatiboak perpausaren amaieran agertzen dira (Oyharçabal 2003b: 806). Halakoetan, oro har, *-(e)n* konplementatzailedun aditz jokatuak *a* mugatzailea hartu ohi du, absolutibo kasua alegia:

(2)	Bazen	neskatxa	txiki	bat	[ona zena]
	BA.zen	neskatxa	txiki	bat	ona zen.EN.ABS

Hizkera batzuetan, absolutibo marka ez ezik, *-(r)ik* partitibo marka ere har dezake perpaus erlatiboko adizkiak. Horretarako, aitzindariak izen sintagma mugagabea izan behar du (de Rijk 1972: 167). Esate baterako, (3)-ko adibidean *bat* determinatzaile zehaztugabea du *neskatxa ttipi bat* izen sintagma aitzindariak:

(3)	Bazen	neskatxa	ttipi	bat	[ona zen ik]
	BA.zen	neskatxa	ttipi	bat	ona zen.EN.PRTV

Banaketa dialektala

De Rijkek (1972: 167-168) dioenez, (3) bezalako perpausak Ipar Euskal Herriko (azpi)-hizkera batzuetan aurki daitezke. Esaterako, (3) adibidea Jon Mirande idazle zuberotarraren adibidea da (de Rijk 1972: 168).

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean aztertutako hizkeren artean ez da (3)-ko hizkera erdua inon lekukotu, ezta Urdiñarbeko zubereraz ere.

Eztabaida teorikoa

Oyharçabalen (2003b: 806) arabera (3) bezalako perpausak euskara zaharrea ziren posible. Hain zuzen ere, Miranderen adibideez gain de Rijk (1972: 168) jaso dituen adibideak Leizarragaren 1571ko Testamentu Berrikoak dira, hala nola (4)-ko adibidea:

(4) Bertze bat da testifikatzen duenik nitzaz

Egungo euskaraz, aldiz, Oyharçabalek (2003b: 806) dio perpaus erlatiboak partitibo marka hartu ahal izateko aitzindariak ere partitibo marka hartu behar duela, perpaus erlatiboarekin komunztadura eginez (5).¹

(5)	Eta	ez	dut	uste	baden	emazterik	[ezetz	ihardetsiko	didanik]
	eta	ez	dut	uste	BA.den	emazte.PRTV	ezetz	ihardetsiko	dit.EN.PRTV

Bestalde, perpaus erlatiboek partitibo marka har dezaketen beste kasu bat dago; Mitxelenak de Rijki (1972: 168) adierazi zionez, ekialdeko hizkeretan (hots, Gipuzkoa eta Bizkaiatik kanpokoetan) ager daiteke kasu hau. Testuinguru existentzialetan, perpaus erlatiboak partitibo marka har dezake hizkera horietan, aitzindaria izenordaina denean (6) (de Rijk 1972: 169):

(6) Ba da oraindik haren ateraldi eta erantzunak gogoan dituenik
Errenterian

Oharrak:

¹ Dena den, badirudi ahozko euskaraz idatziz baino nasaiagoa dela aitzindariaren eta perpaus erlatiboaren artean komunztadura egiteko beharra (Oyharçabal 2003: 806).

Aipamenak

de Rijk, Rudolf P.G. 1972. «Partitive assignment in Basque» *International Journal of Basque Philology (ASJU)*, VI: 130-73.

Oyharçabal, Beñat. 2003. «Relatives». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.) *A grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 762-823.

vii.3. Perpaus osagarri ez-faktiboak: *-(r)ik* (v - (e)la)

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). Perpaus osagarri ez-faktiboak: *-(r)ik* (v -*(e)la*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.es/biv/?o=chapters&id=7&e=65&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

konplementatzaile ez-faktiboak, konplementatzailea, menderakuntza, partitiboa

Deskribapena

Perpaus osagarri ez-faktiboetan, ¹ *-(e)la* konplementatzailea azaldu ohi da (1). Hauxe da konplementatzaile orokorra, erabilera hedatuena duena (Euskaltzaindia 1999: 46).

(1)	Uste	duzue	dirua
	uste	(3ABS).edun.2PL.ERG	dirua
	nik	ostu	dudala?
	ni.ERG	ostu	(3ABS).edun.1SG.ERG.ELA

Hizkera batzuetan, aldiz, *-(e)nik* konplementatzailea hartzen dute perpaus ez-faktiboetako menpeko perpausak (de Rijk 1972: 170):

(2)	Uste	al	dezute	dirua
	uste	al	(3ABS).edun.2PL.ERG	dirua
	nik	ostu	dedanik?	
	ni.ERG	ostu	(3ABS).edun.1SG.ERG.EN.PRTV	

Konplementatzaile hau konplexua da, *-(e)n* konplementatzailea eta *-ik* partitiboa batuz eratzen baita (Euskaltzaindia 1999: 69; Etxepare 2003: 553). Hain zuzen ere, *-(e)nik* ezezko edo galderazko testuinguruetan agertzen da, partitiboa bezalaxe (Artiagoitia 2003: 645; de Rijk 2008: 456).

Artiagoitiak (2003: 646) dioenez, ezezko perpaus nagusi baten perpaus osagarria da *-(e)nik* agertzeko testuinguru sintaktiko ohikoena (3). Hain zuzen, Lakak (1990) ezezko konplementatzailetzat hartzen du.

(3) Ez dut uste etoriko denik

Ageriko ezeztapena duten perpausetan agertzeaz gain, bestelako ezezko testuinguruetan ere ager daiteke, hala nola berez ezezko esanahia duten aditzen (*ukatu* esaterako) perpaus osagarri gisa (Laka 1990: 210; de Rijk 2008: 456):

(4) Ukatu du etorriko denik

Dena den, bai/ez galderen osagarri gisa ere ager daiteke *-(e)nik* buru duen perpausa, (2) perpausentan adibidez. Euskaltzaindiaren (1999: 72) arabera, galde-perpausetan *-(e)la* izaten da ohiko konplementatzailea; hala ere, *-(e)nik* agertzen da hizkera batzuetan eta are idatzizko testu batzuetan ere (5):

(5)	Ik ez al dun siñesten begia betzuloan ikara ta dardar dabilenean, begizkoa jaurtitzen duenik?	(Orixe, <i>Mireio</i> , 31)
-----	---	-----------------------------

Galderetan *-(e)nik* erabiltzekotan, sakonean ezezko esanahia duten galdera erretorikoak diren perpausak izaten dira bereziki (Euskaltzaindia 1999: 69).

Oharrak:

1 Perpaus faktiboetan, perpaus osagarriak adierazten duena egiazkotzat ematen du hiztunak (ikus 63. kapitulua). Aldiz, perpaus osagarri ez-faktiboetan, ez da perpaus osagarriaren egiazkotasuna auresuposatzen. Hitztunak ez du ziurtasunik erakusten perpaus osagarriak adierazten duenarekiko (Mujika 1980; Goenaga 1984). Esate baterako, (1)eko perpausentan ez da auresuposatzen dirua hitzunik ostu duela; hala izan daiteke edo ez.

Banaketa dialektala

Banaketa dialektalari dagokionez, *-(e)nik* konplementatzailea Hego Euskal Herrian aurki daiteke (Euskaltzaindia 1999; de Rijk 2008). Badirudi aurreko bi mendeetan hedatu dela Hego Euskal Herrian konplementatzaile honen erabilera, autore zaharragoek *-(e)la* erabiltzen baitzuten (Euskaltzaindia 1999: 69). Zehazki, Zuazok (2008: 214) *-(e)nik* mendebaleko eta erdialdeko euskaran aurki daitezkeela dio; euskara nafarrean *-(e)la* erabiltzen omen da. Hala ere, Nafarroako ipar-mendebaldean *-(e)nik* bildu du gehienbat Apalauza Ollok (2010: 441-442).

Iparraldeko hizkeretan, aldiz, arrotza da *-(e)nik* (de Rijk 2008; Zuazo 2008) eta *-(e)la* erabiltzen da bai ezezko bai galderazko perpausetan. Horren berri dakar Epeldek (2004a, 2004b), adibidez, Larresoroko eta Hazparneko hizkeretan.

Hegoaldeko hizkera askotan *-(e)nik* ezezko perpausetan (3) agertu ohi dela deskribatzen dute lan dialektologikoek. Hala jaso da, besteak beste, Lekeition (Hualde, Elordieta eta Elordieta 1994), Ermuan (Aranberri 1996), Elgoibarren (Makazaga 2009) eta Goierriko hainbat hizkeratan (Hurtado 2001): Zaldibian (Etxabe eta Garmendia 2003) eta Beasainen (Agirrebeña, Alberdi, Mendiguren eta

Sarasua 2007) adibidez. Herri-hizkeren gramatika horietako batzuetan, hala nola Ermukoan (Aranberri 1996) eta Elgoibarkoan (Makazaga 2009), galderazko perpausetan (2) ere ager daitezkeela aipatzen da.

Nafarroarantz egin ahala, *-(e)nik* konplementatzailearekin batera *-(e)la* ere ageri da, Bortzirietan eta Baztanen adibidez. Bortzirietan (Zelaieta 2005), *-(e)la* nagusi da ezezko perpausetan ere, eta *-(e)nik* noizbehinka erabiltzen da. Baztanen ere *-(e)nik* gutxi entzuten dela aipatzen dute Salaburu eta Lakarrek (2005), eta honen ondoan *-(e)n* (ikus 62. kapitulua) edo *-(e)la* ager daitezkeela, askoz ohikoagoak.

Datu-basearen emaitzak

Banaketa dialektalean deskribatu dugun bezala, Hego Euskal Herriko hainbat hizkeratan erabiltzen da *-(e)nik* konplementatzailea ezezko perpausetan (3). Alabaina, datu-basean aztergai izan dugun hizkera eredu (2)-koa izan da, hots, *-(e)nik* konplementatzailea ezezko perpausetan ez ezik, galderetan ere erabiltzen duena.

(2)-ko perpausaz galdetzean, bi hizkeratan soilik jaso dugu baiezko lekukotasuna. Batetik, Nafarroako Goizuetan, erdialdeko euskararen eta euskara nafarraren arteko hizkeran. Bestetik, Itsasondon, erdialdeko euskararen. Beraz, badirudi (2) bezalako galderetan eremu murriztagoa hartzen duela konplementatzaile honek ezezko perpausetan baino, euskararen eremuko erdigunera mugatuz.

Eztabaida teorikoa

Atal honetan *-(e)nik* eta *-(e)la* konplementatzaileen arteko banaketaz labur jardungo dugu. Izan ere, *-(e)nik* ezezko testuinguruetan ageri den konplementatzailetzat aurkeztu dugun arren, ezezko perpausetan *-(e)la* adierazpenezko konplementatzailea ager daitezke kasu batzuetan (6). Bata zein bestea hautatzeak desberdintasun semantikoak eragiten ditu (Laka 1990: 217).

(6a) Ez [didate esan [Jon etorriko denik]]

(6b) [Ez didate esan [Jon etorriko dela]]

Aurresuposizioekin eta ezeztapenaren esparruarekin du zerikusia (6a) eta (6b)-ren arteko alde semantikoak (Laka, 1990: 218; Euskaltzaindia 1999: 75). (6a) perpausaz, ezeztapenak perpaus osagarria barne hartzen du, eta ondorioz, perpaus osagarriak *-(e)nik* ezeztapenezko konplementatzailea du buru. (6b) adibidean, aldiz, perpaus osagarria ez dago ezeztapenaren esparruan; ezeztapenak *esan* aditz nagusia soilik barne hartzen du.

Ezeztapenaren esparruak eragina du perpausen esanahian. Lehenengoan (6a), [[Jon etorriko da] esan didate] adierazpen osoa ezeztatzen da. Adierazpen guztia ezeztatu denez, ez dago inolako aurresuposizioerik menpeko perpausaz –hots, Jonen etorreraz–. Aldiz, bigarren perpausaz (6b), *esan* aditz nagusia bakarrik ezeztatzen da, [Jon etorriko da] proposizioaren egiazkotasun aurresuposizioerik gabe. Beraz, Jonen etorrerari buruzko aurresuposizioak egin daitezke, etorrera egia izan daiteke zein

ez, ezeztapenetik kanpo gelditzen baita. Lakaren (1990: 218) arabera, *-(e)la* konplementatzaileak zehazki egiaren auresuposizioa dakar eta (6b) perpausean Jonen etorrera gertatu dela auresuposatzen du hiztunak.

Aipamenak

- Agirrebeña, Aintzane, Itziar Alberdi, Xabier Mendiguren and Asier Sarasua. 2007. *Beasaingo euskara. Herrizko hizkeraren azterketa eta ahozko ondarearen bilketa*. Beasain: Beasaingo Udala
- Apalauza, Amaia. 2010. *Nafarroako ipar-mendebaldeko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Ph.D. Diss., Gasteiz: UPV/EHU.
- Aranberri, Fernando. 1996. *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermua: Ermuko Udaleko Euskara Batzordea.
- Artiagoitia, Xabier. 2003. «Complementation (noun clauses)». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 634-711.
- de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- de Rijk, Rudolf P.G. 1972. «Partitive assignment in Basque» *International Journal of Basque Philology (ASJU)*, VI: 130-73.
- Epelde, Irantzu. 2004a. «Lapurdikoko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz» *FLV*, 36, 96. 271-304.
- Epelde, Irantzu. 2004b. *Larresoroko azterketa. Dialektologia azterketa*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.
- Etxabe, Karmele and Larraitz Garmendia. 2003. *Zaldibiako euskara*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.
- Etxepare, Ricardo. 2003. «Valency and argument structure in the Basque Verb». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 363-425.
- Euskaltzaindia. 1999. *Euskal gramatika. Lehen urratsak - V. Mendeko perpausak I*. Bilbo: Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]
- Goenaga, Patxi. 1984. *Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.
- Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta and Arantzazu Elordieta. 1994. *The Basque dialect of Lekeitio*. Bilbo and Donostia: PV/EHU and Gipuzkoako Foru Aldundia. Supplements of the *International Journal of Basque Philology ASJU* 34.
- Hurtado, Irene. 2001. *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: IX. Gerriko Ikerlan Sariketa.
- Laka, Itziar. 1990. *Negation in syntax: on the nature of functional categories and projections*. Ph.D. Diss., MIT.
- Makazaga, Jesus Mari. 2009. *Elgoibarko euskara*. Ph.D. diss., UPV/EHU.
- Mujika, José Antonio. 1980. «Zenbait konpletiboren azterketa J. Leizarragan» *Euskera*, XXV (2). 597-629.
- Salaburu, Pello and Maite Lakar. 2005. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.

Zelaieta, Edu. 2005. «Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)»*FLV*, 37, (99 zb.). 287-306.

Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektok*. Donostia: Elkar.

vii.4. Perpaus osagarri ez-faktiboak: *-(e)n* (v *-(e)la*)

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). Perpaus osagarri ez-faktiboak: *-(e)n* (v *-(e)la*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.es/biv/?o=chapters&id=7&e=40&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

erlatibizatzailea, erlatiboak, konplementatzailea, menderakuntza, perpaus osagarri ez-faktiboak

Deskribapena

(1) bezalako perpaus osagarri ez-faktiboetan, ¹*-(e)la* konplementatzailea izaten da burua. Hain zuzen ere, konplementatzaile hau orokorra da euskalki guztietan adierazpenezko perpausetarako (Euskaltzaindia 1999: 46; Artiagoitia 2003: 635).

(1)	Uste	dut	zurea	dela
	uste	(3ABS).edun.1SG.ERG	zurea	da.ELA

Alabaina, hizkera batzuetan *-(e)la* beharrean, *-(e)n* da perpaus osagarri ez-faktiboetako burua.

(2)	Uste	dut	zurea	den
	uste	(3ABS).edun.1SG.ERG	zurea	da.EN

Lafitten (1944 [1979]: 395) arabera, *-(e)n* agertzen da aieruzko aditzen osagarri diren perpausetan. Halakoak dira, esate baterako, *uste izan*, *beldur izan* eta *badaithe/baliteke* (Euskaltzaindia 1999: 76; Artiagoitia 2003: 642).

Oharrak:

1 Perpaus faktiboetan, hiztunak ziurtzat jotzen du perpaus osagarrian adierazi dena (ikus 63. kapitulua). Aldiz, kapitulu honetan aztergai dugun ezaugarrian perpaus ez-faktiboek ari gara. Hauetan, hiztunak ez du perpaus osagarriak adierazten duena egiazkotzat jotzen; aitzitik, auresuposiziorik gabeko perpausak dira eta hiztunak ez du perpaus osagarriaren ziurtasunaz baloraziorik egiten

(Mujika 1980; Goenaga 1984; Euskaltzaindia 1999: 75). Hala, (1) perpausean, baliteke delako objektuaren jabetza zurea izatea, baina aukera bera dago objektua zurea ez izateko ere. Kontua zera da, nire ustea adieraztea, uste hori egiazkoa den ala ez auresuposatu gabe.

Banaketa dialektala

Oro har, ekialdeko hizkerek erakusten dute (2)-ko hizkera eredia (Euskaltzaindia 1999; Artiagoitia 2003). Zuazok (2008: 214) dioenez, Ipar Euskal Herrian eta euskara nafarrean lekukotzen da ezaugarri hau; aldiz, erdialdeko eta mendebaleko euskaran (1)-eko hizkera eredia darabilte, hots, *-(e)la* konplementatzailea erabiltzen dute.

Nafarroako ipar-mendebaldeko eremuan, sortaldeko Imotz eta Basaburu Nagusiko ibarretan (Berueten izan ezik), *-(e)n* da nagusi gaur egun, nahiz eta *-(e)la* ere entzun daitekeen (Apalauza 2008: 96, 2010: 439). Aldiz, bailara horietatik mendebaldera *-(e)la* ageri da, Berueten, Larraunen eta Araitz-Betelun adibidez (Apalauza 2010: 440).

Baztan aldean ere *-(e)n* konplementatzaile hutsa erabiltzen da menpeko perpaus osagarrietan eta bereziki *uste izan* aditzarekin nahiko naturala suertatzen da (Salaburu eta Lakar 2005: 158). Dena den, Salaburu eta Lakarren (2005: 157) arabera, *-(e)la* (3b) zein *-(e)nik* (4b) ere entzun daitezke Baztanen, *-(e)n* konplementatzailearen balio berarekin:

(3a) Uste dut beitiko plazan bazen ura

(3b) Uste dut beitiko plazan bazela ura

(4a) Ez dut uste bertze herrietan kantatzen zen

(4b) Ez dut uste bertze herrietan kantatzen zenik

Zelaietak (2005: 294) Bortzerrietan ere *-(e)n* erabiltzen dela dio, nahiz eta gazteen artean ez den oso erabilia, ez behintzat Xaretako herrietan bezainbeste. Irun eta Hondarribian ere ezaguna da konplementatzaile hau, *-(e)la*-k erabilera handiagoa duen arren (Sagarzazu 2005: 84).

Bestalde, jada Ipar Euskal Herrian, Epeldek (2004a, 2004b) *-(e)n* konplementatzailea erabiltzen dela dio Larresoro eta Hazparne aldean. Are gehiago, eremu hauetan perpaus osagarriak ez duela *-(e)la* hartzen aipatzen du (Epelde 2004a: 297). Beraz, zenbat eta ekialderago, *-(e)n* konplementatzaileak indar handiagoa duela dirudi, *-(e)la*-ren aldean.

Datu-basearen emaitzak

Datu-basearen emaitzek bat egiten dute deskribatutako banaketa dialektalarekin. Izan ere, banaketa argia antzeman daiteke ekialdeko hizkeren eta mendebaldekoen artean.

Ipar Euskal Herriko hizkeretan (2)-ko hizkera eredia lekukotu da, Lapurdiko kostaldean izan ezik

(Ziburu). Nafarroan, ekialderen dauden hizkeretan ere jaso da, hala nola Baztanen (Salaburu eta Lakar 2005) eta Erroibarren.

Horrez gain, Imotzen ere *-(e)n* jaso da, ez ordea mendebalderago Arbizu eta Urdiainen, Apalauzak (2008, 2010) aipatutako banaketarekin bat etorritz. Orobat, ez da (2)-ko hizkera eredu lekukotu Goizuetan (Nafarroa), ezta Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko hizkeretan ere, espero zen bezala.

Aipamenak

- Apalauza, Amaia. 2008. «Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu». *FLV* 107. 63-104.
- Apalauza, Amaia. 2010. *Nafarroako ipar-mendebaldeko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Ph.D. Diss., Gasteiz: UPV/EHU.
- Artiagoitia, Xabier. 2003. «Complementation (noun clauses)». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 634-711.
- Epelde, Irantzu. 2004a. «Lapurdikoko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz» *FLV*, 36, 96. 271-304.
- Epelde, Irantzu. 2004b. *Larresoroko azterketa. Dialektologia azterketa*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.
- Euskaltzaindia. 1999. *Euskal gramatika. Lehen urratsak - V. Mendeko perpausak I*. Bilbo: Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]
- Goenaga, Patxi. 1984. *Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]
- Mujika, José Antonio. 1980. «Zenbait konpletiboren azterketa J. Leizarragan» *Euskera*, XXV (2). 597-629.
- Sagarzazu, Txomin. 2005. *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Irun: Alberdania
- Salaburu, Pello and Maite Lakar. 2005. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Zelaieta, Edu. 2005. «Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)» *FLV*, 37, (99 zb.). 287-306.
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.

vii.5. Perpaus osagarri faktiboak: *-(e)na* (*v* - *(e)la*)

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). Perpaus osagarri faktiboak: *-(e)na* (*v* - *(e)la*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=7&e=41&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

erlatibizatzailea, erlatiboak, konplementatzailea, menderakuntza, perpaus osagarri faktiboak

Deskribapena

Menpeko perpaus osagarrietan *-(e)la* konplementatzailea izaten da burua (1). Konplementatzaile hau euskalki guztietan orokorra da eta adierazpen perpausetan erabili ohi dena da (Euskaltzaindia 1999: 46; Artiagoitia 2003: 635).

(1)	Esan	didate	euskalduna	zarela
	esan	(3ABS).edun.3PL.ERG.1SG.DAT	euskalduna	zara.ELA

Mendebaleko hizkera batzuetan, adierazpeneko perpaus osagarrien buru gisa *-(e)na* konplementatzailea ere erabil daiteke *-(e)la*-ren ordeztu (2) (Euskaltzaindia 1999: 67; Artiagoitia 2003: 646):

(2)	Esan	didate	euskalduna	zarena
	esan	(3ABS).edun.3PL.ERG.1SG.DAT	euskalduna	zara.ENA

Badirudi *-(e)na* konplementatzailearen osaera konplexua dela, *-(e)n* konplementatzaileari *-a* artikulua mugatua gehitu baitzaio (Euskaltzaindia 1999: 67; Artiagoitia 2003: 646).

Ikus daitekeenez, (1) eta (2) perpaus bera dira, konplementatzaile desberdinarekin. Mendebaleko hiztunek bi perpausak sor ditzaketen arren, bi perpaus ez dute interpretazio berbera, konplementatzaile bakoitzak irakurketa desberdina ematen baitio perpausari. Zehazki, *-(e)na* perpaus osagarri faktiboetan erabiltzen da; hala, (2)-ko perpausak interpretazio faktiboa du, (1)-ekoak ez bezala.

(2) bezalako perpaus faktiboetan, hiztunak ziurtatzen du perpaus osagarriko adierazpena (Euskaltzaindia 1999: 67; Artiagoitia 2003: 646-647; Zuazo 2013: 52, 2017: 60). Kasu honetan, menpeko perpaus osagarriko [euskalduna zara] proposizioa egia dela aurreuposatzen du hiztunak. Horregatik, ez da posible informazio hori ezeztatzea (3a).

(3a)	Esan didate euskalduna zarena #baina ez da egia
(3b)	Esan didate euskalduna zarela baina ez da egia

Aldiz, *-ela* konplementatzailea buru duen (2)-ko perpausa ez da faktiboa eta hiztunak ez du menpeko perpausko adierazpenari buruz inolako aurreuposizioirik. Horren ondorioz, menpeko perpausa ukatu daiteke (3b).

Bestalde, *-(e)na* konplementatzailea buru duen perpaus osagarria ezin da galdegai edo foku gunean agertu (Zuazo 2013: 52, 2017: 60). Artiagoitiaren (2003: 647) arabera, arrazoia honakoa da: hiztunak

perpaus osagarria egiazkoa dela jakintzat ematen duenez, ez du informazio berririk eskaintzen. Hortaz, ezinezkoa litzateke *zer esan dizute?* galderari (2)-ko perpausarekin erantzutea, bai ordea (1)-eko perpausarekin.

Perpauetan duten kokaguneari dagokionez ere ez dira guztiz berdinak *-(e)na* eta *-(e)la* konplementatzaileak perpausak. Lehenengoa daraman adizkiak perpausaren amaieran agertzeko joera du (Euskaltzaindia 1999: 69); bigarrena buru duen perpausa, aldiz, aditz nagusiaren aurretik agertzea da ohikoagoa (4) (Artiagoitia 2003: 647):

(4)	Euskalduna	zarella	esan	didate
	Euskalduna	zara.ELA	esan	(3ABS).edun.3PL.ERG.1SG.DAT

Honakoak hauek dira *-(e)na* konplementatzailearen aditz nagusi gisa agertu ohi diren aditz eta predikatuetako batzuk (Euskaltzaindia 1999: 68; Zuazo 2017: 60): *aditu/ulertu, agerian egon, aitortu, argi egon, asmatu, bistan egon / bistakoa izan, dudarik ez eduki, egia izan, entzun, erakutsi, esan, ezagun izan, ezagutu, gezurra izan, gogoan eduki / gogoratu, akorduan eduki / akordatu, igarri, ikusi, itxura eduki, jakin / jakinekora izan, konbentziturata egon, kontuan eduki / konturatu, seinale izan, sinistu, susmatu, ukatu, uste izan, seguru izan / seguru egon...*

Banaketa dialektala

(2)-ko hizkera eredia, hots, perpaus osagarri faktiboetan *-(e)na* konplementatzailea erabiltzen duena, mendebaleko euskaran aurki daiteke (Zuazo 2004: 76; 2013: 52; 2017: 60). Bereziki, Bizkaian aurki daiteke Euskaltzaindiaren (1999: 67) eta Artiagoitiaren (2003: 646) arabera.

Zuazoren (2017: 60) arabera, baliteke konplementatzaile hau Arabatik hedatu izana, Lazarragaren izkribuetan asko aurki baitaiteke. Egun, Arabako Aramaioko euskaran oraindik badirau Ormaetxearen arabera (2002: 123).

Dena den, *-(e)na* ez da mendebaleko euskalkiaren eremu osoan berdin lekukotzen. Zuazoren (2017: 60) esanetan, konplementatzaile hau ez da Bizkaiko hego-mendebaldean erabiltzen, Orozkon eta Nerbioi ibarrean zehazki.

Hortik kanpo, Bizkaiko hainbat hizkeratan lekukotzen da, hala nola Lekeition (Hualde, Elordieta eta Elordieta 1994: 184-185), baina baita medebaldeko euskalkiaren sortaldeko hizkeretan ere, Deba Ibarreko hainbat herritan hain zuzen: Mallabia (Zuazo 2017: 60), Ermua (Aranberri 1996: 126) eta Elgoibar (Makazaga 2009: 197; Zuazo 2013: 52) adibidez. Dena den, hainbat eremutan indarra galtzen hasia da, Eibarren adibidez (Sarasua, Agirrebeña eta Zenarruzabeitia 2005: 522). Makazagaren esanetan (2009: 197), Elgoibarren ere gazteek gero eta gutxiago darabilte, 50-60 urtetik gorakoen artean nahiko erabiltzen den arren.

Erdialdeko euskalkiari dagokionez, Gipuzkoako sortaldeko eta hegoaldeko hizkeretan entzun daitekeela dio Zuazok (2017: 60), Urolaldean eta Goierrin esate baterako. Hurtadok (2001: 119-121) azaltzen duenez, Otxoa Arin ordiziarraren eta Zegamako Dotrinaren adibideek erakusten dute XVIII. mendetik erabili izan zela *-(e)na* Goierrin eta ordutik literaturan hainbatetan agertu izan da. Noizbait Goierrin orokorra izan arren, gaur egun batez ere sartaldean aurki daitekeela dio Hurtadok (2001:

120), Urretxun adibidez.

Goierriko sortaldean, aldiz, indarra galduz doa, hala nola Beasainen (Agirrebeña, Alberdi, Mendiguren eta Sarasua 2007: 71-72) edo Zaldibian (Etxabe eta Garmendia 2003: 78). Eredu honetan *-(e)na* entzutekotan, hiztun zaharrenean ahotan entzuten da, gazteek *-(e)la* erabiltzen baitute (Hurtado 2001: 120; Etxabe eta Garmendia 2003: 78).

Goierriatik ekialdera ere, Tolosaldean, *-(e)na* jada ez bide da erabiltzen, aurreko mendeetako lekukotasun idatzietan ageri arren (Hurtado 2001: 120-121). Orobat, Baztanen ere *-(e)la* nagusi dela diote Salaburu eta Lakarrek (2005: 156), mendebaleko euskalkietan ez bezala.

Datu-basearen emaitzak

Oro har, datu-basearen emaitzak bat datoz aipatutako banaketa dialektalarekin. Mendebaleko euskalkian hizkera guztietan lekukotu da *-(e)na* konplementatzailea (2), baita Deba ibarreko hizkeretan ere. Horrez gain, erdialdeko euskalkian ere lekukotu da, Urolaldean hain zuzen (Azpeitian eta Beizaman).

Aldiz, Gipuzkoako erdialde eta iparraldean ez da (2)-ko hizkera eredu lekukotu. Orobat, ez da *-(e)na* konplementatzailea jaso Nafarroako hizkeretan, ezta Ipar Euskal Herriko hizkeretan ere.

Beraz, badirudi mendebaleko euskalkiaren ezaugarri nahiko argia dugula hau, Gipuzkoako sartaldean oraindik dirauena baina gutxika ekialdetik indarra galduz doana.

Eztabaida teorikoa

Euskaltzaindiak (1999: 67) dioenez, mendebaleko testuetan *-(e)na* konplementatzailearen joera aztertuz gero, ez dirudi faktibotasunak bi konplementatzaileen erabilera deskribatzeko arau zehatza eskaintzen duenik. Gehienez, literaturan *-(e)na* konplementatzailearekin erabili izan diren predikatuak aztertu eta joerak suma daitezkeela dio.

Aipamenak

Agirrebeña, Aintzane, Itziar Alberdi, Xabier Mendiguren and Asier Sarasua. 2007. *Beasaingo euskara. Herrizko hizkeraren azterketa eta ahozko ondarearen bilketa*. Beasain: Beasaingo Udala

Aranberri, Fernando. 1996. *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermua: Ermuko Udaleko Euskara Batzordea.

Artiagoitia, Xabier. 2003. «Complementation (noun clauses)». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 634-711.

Etxabe, Karmele and Larraitz Garmendia. 2003. *Zaldibiako euskara*. Zaldibia: Zaldibiako Udala.

- Euskaltzaindia. 1999. *Euskal gramatika. Lehen urratsak - V. Mendeko perpausak 1*. Bilbo: Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]
- Hualde, José Ignacio, Gorka Elordieta and Arantazu Elordieta. 1994. *The Basque dialect of Lekeitio*. Bilbo and Donostia: PV/EHU and Gipuzkoako Foru Aldundia. Supplements of the *International Journal of Basque Philology ASJU* 34.
- Hurtado, Irene. 2001. *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: IX. Gerriko Ikerlan Sariketa.
- Makazaga, Jesus Mari. 2009. *Elgoibarko euskara*. Ph.D. diss., UPV/EHU.
- Ormaetxea, Txipi. 2002. *Aramaioko euskara*. Aramaio: Aramaioko Udala.
- Salaburu, Pello and Maite Lakar. 2005. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Sarasua, Asier, Aintzane Agirrebeña and Leire Zenarruzabeitia. 2005. *Eibarko euskara. Gure hizketaren doinu eta berbak*. Eibar: Eibarko Udala.
- Zuazo, Koldo. 2004. *Euskalkiak, herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2013. *The dialects of Basque*. Reno: University of Nevada.
- Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

vii.6. *Bait-* perpaus osagarrietan: *bait-* (v -(e)la

)

Egilea: Irati Huarte

Nola aipatu: Huarte, Irati. (2022). *Bait-* perpaus osagarrietan: *bait-* (v -(e)la) . In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=7&e=42&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

erlatiboak, konplementatzailea, menderakuntza, perpaus osagarriak

Deskribapena

Euskaraz, oro har, perpaus osagarri faktiboetako burua *-(e)lamorfema* izan ohi da (Euskaltzaindia 1999: 46):

(1)	Hau	da	haren	abantailik	handiena,	ez	duela	asko
	hau	da	haren	abantaila.PRTV	handiena	ez	(3ABS).edun.3ERG.ELA	asko
	gastatzen							

Dena den, ekialdeko hizkeretan *-(e)la* konplementatzailearen ordezbait-morfema agertzen ahal da mota honetako perpaus osagarrietan. Gainera, perpaus osagarri hau erakusle baten bidez azaldu ohi da perpaus nagusian (Lafitte 1979 [1944]: 405):

(2)	Hau	da	haren	abantailik	handiena,	ez	baitu
	hau	da	haren	abantaila.PRTV	handiena	ez	BAIT.(3ABS).edun.3ERG
	ainitz	xahutzen					
	anitz	xahutu.IPFV					

Banaketa dialektala

Gaur egun, *bait*-morfemaren funtzio nagusia kausazko perpausak sortzea izan arren (Artiagoitia 2003: 648; Euskaltzaindia 2005: 181), Euskal Herriko Iparraldeko hizkeren perpaus faktiboetarako erabili ohi dute (Euskaltzaindia 1999: 79). Erraterako, honako adibidea biltzen du Irizarrek (1997: 338) 1993an Bidarteko (Lapurdi) adineko gizon baten ahotan:

(3) Eta zúk erran duzuná, be(h)ár ba, baizú (badakizu), öái hártzen baituzté

Datu-basearen emaitzak

Euskaltzaindiak (1999: 80) dioenez, Iparraldeko hizkeren ezaugarria litzateke *bait*-perpaus osagarrietan erabiltzea, baina egun kausazkoak egiteko erabiltzen denez nagusiki, ez litzateke harrigarria izan ekialdeko euskalkietan ere *-(e)la* izatea. Emaitzekin hasteko, alde batetik, nafarreraz eta nafar-lapurteraz mintzatzen diren elkarrizketatu batzuek *bait*-osagarritzat darabilte. Hain zuzen, Nafarroan, Baztan inguruan eta Orbaizetan *baiten* erabilera hau lekukotzen da, baita Lapurdiko Larresoro eta Ziburu herrietan ere.

Bertze alde batetik, Arbizu, Goizueta, Mezkiritz eta Urdiain herri nafarretako hiztunek *-(e)la* morfema nahiago dute, Oragarreko (Behe-Nafarroako) inkestatuak bezala. Ekialdeko hizkerekin bukatzeko, Zuberoan ere *-(e)la* lekukotzen da. Azkenik, orain arte errandakoa kontuan hartuz espero genuen bezala, Hegoaldeko bertze euskalkietan ez *dabait*-morfema perpaus osagarri faktiboetan agertzen, *-(e)labaizik*.

Aipamenak

- Artiagoitia, Xabier. 2003. «Complementation (noun clauses)». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 634-711.
- Euskaltzaindia. 1999. *Euskal gramatika. Lehen urratsak - V. Mendeko perpausak 1*. Bilbo: Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]
- Euskaltzaindia. 2005. *Euskal Gramatika. Lehen urratsak VI. Mendeko perpausak-2*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Irizar, Pedro. 1997. *Morfología del verbo auxiliar labortano (estudio dialectológico)*. Iruñea: Euskaltzaindia & UPV/EHU.
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]

vii.7. Erlatibo aposiziozkoak izenordainekin: *zein...bait-* (v -(e)n)

Egilea: Itziar Mendizabal

Nola aipatu: Mendizabal, Itziar. (2022). Erlatibo aposiziozkoak izenordainekin: *zein...bait-* (v -(e)n). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=7&e=43&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aposiziozko erlatiboak, *bait*-erlatiboak, erlatibizatzailea, erlatiboak, konplementatzailea, menderakuntza

Deskribapena

Perpaus erlatiboak, oro har, izen-sintagmen barneko osagaiak dira, eta perpaus nagusiko elementuaren erreferentziakide izaten dira (Oihartzabal 1983; Euskaltzaindia 2011; Krajewska 2017). Sintagma jokatu-gabea bada, *-tako* menderagailua erabiltzen da (1), eta jokatua bada berriz, *-(e)n* (2) (Euskaltzaindia, 2011).

(1)	[Etxeberrik [Etxeberri.ERG	berriki berriki	itzulitako itzuli.TAKO]	eleberria] eleberri.ABS	erosi erosi	dut dut	
(2)	[Etxeberrik [Etxeberri.ERG	berriki berriki	itzuli itzuli	du-en (3ABS).edun.3ERG.EN]	eleberria] eleberri.ABS	erosi erosi	dut dut

Batzuetan, erreferentziakidea perpaus erlatiboaren aurretik ageri daiteke. Perpaus erlatibo horiei ‘apoziozko erlatibo’ esaten zaie (Oihartzabal 2003). Buru gabeko erlatiboak izan ohi dira, deskribatzen edo mugatzen duten sintagmaren eskuin aldean egoten direnak eta, beraz, kasu horietan perpaus erlatiboa ez da izen-sintagmaren barnean egoten, adjuntu gisa baizik (Lafitte 1944; Euskaltzaindia 1999; Oihartzabal 2003; Krajewska 2017).

(3)	Eleberria,	[Etxeberrik	berriki	itzuli	du-en-a],		erosi	dut.
	Eleberri.ABS	[Etxeberri.ERG	berriki	itzuli	(3ABS).edun.3ERG.EN.ABS]		erosi	dut.

Erabilienak eta arruntenak aurretik azaldutako moldeak —(1), (2) eta (3)— badira ere (Euskaltzaindia 1999; Biguri 2020), euskaraz beste molde batzuk ere baditugu erlatiboak eratzeko: *zein* erlatiboak, adibidez. Kasu horretan, izenak dioen bezala, *zein* bezalako galdera-izenordaina perpaus erlatiboaren hasieran kokatu eta izenordain erlatibo gisa erabiltzen dira. Izenordain erlatiboak anaforikoak dira eta, ondorioz, perpaus nagusian izan ohi dute erreferentziako sintagma, ‘aurrekaria’ izenez ezagutzen dena (Lafitte 1944; Euskaltzaindia 1999). (4) adibidean, esaterako, aurrekaria edo erreferentziakidea perpaus erlatiboaren aurretik agertzen da. Horrez gain, perpaus erlatiboaren amaieran, aurreko kasuetan —(2) eta (3)— ikusi denaren antzera, aditz jokatuari *-(e)n* konplementatzailea txertatzen zaio (4) (Euskaltzaindia 1999, 2021; Lafon 1999; Oihartzabal 2003). Esan beharra dago galdera-izenordainak erreferentziakidearen kasua islatu dezakeela ((2) adibidean absolutiboa, esate baterako) baina ez dela ezinbestekoa (Euskaltzaindia 1999, 2021; Oihartzabal 2003).

(4)	Obaba,	[zein(a)	Atxagak	idatzi	duen,]		ederra	da.
	Obaba.ABS	[zein(a).ABS	Atxaga.ERG	idatzi	(3ABS).edun.3ERG.EN]		ederra	da

Hainbat hizkeratan, baina, *zein* erlatiboetan *bait-* konplementatzaileaz baliatzen dira *-(e)n* menderagailuaren ordez (5) (Lafitte 1944; Txillardegi eta Aurrekoetxea 1987; Lafon 1999; Euskaltzaindia 1999, 2021; Oihartzabal 2003):

(5)	Obaba,	[zein(a)	Atxagak	idatzi	baitu,]		ederra	da.
	Obaba.ABS	[zein(a)	Atxaga.ERG	idatzi	BAIT.(3ABS).edun.3ERG]		ederra	da

Beste hizkera batzuetan, berriz, ‘bait-erlatibo’ deiturikoak (Euskaltzaindia 1999, 2021; Oihartzabal 2003) erabiltzen dituzte. Hau da, (5)-en bezala *bait-* konplementatzaileaz baliatzen dira baina galdera-izenordainik gabe (6) (Lafitte 1944; Lafon 1999; Euskaltzaindia 1999, 2021; Oihartzabal 2003):

(6)	Landibarren	badira	lau	kartier	[horiek	baitira	Behaune,	Dona	Donostia
	Landibar.INE	badira	lau	kartier	[horiek	BAIT.dira	Behaune,	Dona	Donostia
								Martine,	
								Martine,	

Beste apoziozko erlatiboen kasuan bezala, *bait* erlatiboak (6) ere aurrekariaren ondoren ager daitezke edo berezita, perpausaren amaieran (Euskaltzaindia 1999, 2021; Oihartzabal 2003). Bestalde, galdera-izenordainen ordez izenordain erresunptiboak ager daitezke, aurrekariari erreferentzia egiten diotenak, alegia ((6) adibideko *horiek* erakuslea, esaterako) (Euskaltzaindia 1999,

2021; Oihartzabal 2003). Horrez gain, kasu batzuetan *bait*- menderagailuaren funtzioa erabat argi ez badago ere, orokorrean ez du esanahi zehatzik izaten. Azken finean, *bait*- kausa adierazteko ere erabiltzen denez, esaldi batzuk erlatibo edo kausalaren arteko anbiguotasuna izan dezakete (Euskaltzaindia 1999; 2021; Oihartzabal 2003). Perpaus erlatiboko aditzari dagokionez, perpausaren erdian edo bukaeran azaldu daiteke, baina izenordain erlatiboaren edo erresumptiboaren ondoren emateko joera dago, (6) adibidean ikusi daitekeen bezala (Euskaltzaindia 1999)

Oharrak:

1 Aldaera gisara *zeina* ere erabili izan da, baina badirudi ez dagoela inolako desberdintasunik esanahiari edo egiturari dagokionez bi formen artean (Euskaltzaindia 1999, 2021; Oihartzabal 2003). Halere, badirudi XVI. eta XVII. mendeetan determinatzaile gabe erabili ohi zela nagusiki (Oihartzabal 2003), eta XVIII. mendetik aurrera *zeina* forma gailendu zela Lapurdin eta Gipuzkoan (Oihartzabal 2003).

Banaketa dialektala

Badirudi *zein* galdera-izenordainarekin batera *-(e)n* edo *bait*- konplementatzailea erabiltzea euskalkien araberakoa dela eta, beraz, ez dagoela bestelako desberdintasunik (4) eta (5) adibideen artean (Oihartzabal 2003; Euskaltzaindia 2021). Oro har, lehena (4) mendebaldean erabiltzen dela gehienbat, eta bigarrena (5) ekialdean (Euskaltzaindia 1999, 2021; Oihartzabal 2003). Nafarreraz, berriez, biak erabili izan dira Euskaltzaindiaren (1999) arabera.

(4) eta (5) gisako ereduak arbuaiatuak izan dira Euskal Herri osoan, XIX. mendetik aurrera bereziki (Oihartzabal 2003), pentsatzen zelako erdal eredu bati jarraituz moldatu zirela euskararako, eta ondorioz, erdal kutsua hartzen zitelako egitura horiei (Euskaltzaindia 1999, 2021; Lafon 1999; Oihartzabal 2003; Biguri 2020). Hala eta guztiz ere, esan beharra dago aspalditik eta euskalki guztietako testu idatzietan aurkitu izan direla halako ereduak (Lafon 1999; Euskaltzaindia 2021), zehatzago esateko, XVI. mende hasieratik (Oihartzabal 2003); eta euskara batua hedatu ahala erabiliagoak izaten hasi direla *zein* ereduko erlatiboak (Biguri 2020; Euskaltzaindia 2021), nahiz eta ez diren 1880ra arte erabili ziren bezainbeste erabiltzera itzuli (Oihartzabal 2003).

Bait- erlatiboak (6) XIX. mendean ekialdean garatu ziren (Lafitte 1944; Lafon 1999; Euskaltzaindia 1999, 2021; Oihartzabal 2003), aurreko bi ereduen ordezkotzat gisara, eta XX. mendean erabili izan dituzte ekialdeko idazleek (Euskaltzaindia 2021). Lafonek (1999) Bonaparteren sailkapena oinarritzat hartuz, iparraldeko eta hegoaldeko nafarrean, euskara lapurtarrean, euskara zuberotarrean eta ekialdeko eta mendebaldeko behe-nafarrean erabiltzen direla dio; edo laburrago esateko, euskara bizkaitarrean eta gipuztean izan ezik, euskalkia erabiltzen den Euskal Herriko eremu osoan. Oihartzabalen (2003) arabera, adituek (eta orokorrean gizarteak ere) erlatibo moldeekiko zuten iritzia erdal ondorioz, gaur egun *bait*- ereduko erlatiboak oso ohikoak dira ekialdean, *zein* izenordaineko erlatibokoak ez bezala.

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean ez da *zein...* *bait*- ereduko erlatiboa (5) inon jaso, baina *bait*- eredukoak euskara nafar-lapurterra eta zuberotarra erabiltzen diren eremuetan jaso dira; hain zuzen ere, Larresoron, Oragarren, Ziburun eta Urdiñarben. Horrez gain, euskara nafarreko sortaldeko azpieuskalkian eta Baztan-Urdazubi-Zugarramurdi eskualdeko eta Aezkoa ibarreko tarteko hizkeretan ere lekukotzen da (Zuazoren (2014) sailkapenaren arabera). Labur esateko, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroa ekialdean jaso da (6) eredua, eta hori bat dator aurretik hainbat autorek (Lafitte 1944; Lafon 1999; Euskaltzaindia 1999, 2021; Oihartzabal 2003) esandakoarekin.

Bestalde, lehenago aipatu bezala, *zein* izenordainarekin eratutako erlatiboak arbuiatuak izan ziren XIX. mendetik aurrera (Euskaltzaindia 1999, 2021; Lafon 1999; Oihartzabal 2003; Biguri 2020), eta ondorioz, ekialdean horiek ordezkatzeko *bait*- eredua erabiltzen hasi ziren (Lafitte 1944; Lafon 1999; Euskaltzaindia 1999, 2021; Oihartzabal 2003). Orain euskara batua hedatzen joan den heinean, mendebaldean galdera izenordaineko erlatiboak egitura gehigarri gisara hasi dira erabiltzen (Biguri 2020; Euskaltzaindia 2021), baina ekialdean, jada *bait*- motakoak erabiltzen direnez, posible da beste egiturarik erabiltzen hasteko beharrik ez izatea (Oihartzabal 2003).

Eztabaida teorikoa

Perpaus erlatiboak esanahiari dagokionez bi multzotan bereizten dira: erlatibo murrizgarriak eta ez-murrizgarriak. Izenak dioen bezala, lehen motakoek aurrekaria murrizten edo mugatzen dute, eta ez-murrizgarriek, aldiz, aurrekariari buruzko informazioa gehitzen dute (Goenaga 1980; Euskaltzaindia 1999, 2021; Oihartzabal 2003). Goenagaren (1980) arabera, bi interpretazioak formalki bereizi daitezke, ez-murrizgarriek eten bat tartekatuta eta izenaren eskuinetara kokatzen direlako. Biguriren (2020) hitzetan, baina, konplexuagoa da formalki nola desberdintzen diren ondorioztatzea, erlatibo ez-murrizgarriak euskal tradizio literarioan komarekin zein koma gabe aurki daitezkeelako. Besteak beste, Villasante, Mitxelena, Arejita edo de Rijken iritziz (Biguri 2020), *zein* izenordainarekin eratutako erlatiboek ez-murrizgarri interpretazioa besterik ez dute (Euskaltzaindia 1999; Oihartzabal 2003; Biguri 2020), baina beste hainbaten ustez balio ez-murrizgarriarekin ez ezik, murrizgarri gisa ere erabil daitezke (Euskaltzaindia 1999).

Krajewskak (2017) irakurketa bakoitzak euskal idazle klasikoen artean izan duen maiztasuna aztertu du, eta datuen arabera, erlatibo arrunten *-(e)n* menderagailuaren bidez eratutakoak) %97,8k balio murrizgarria du. Hori oinarritzat hartuz, badirudi balio murrizgarriarentzat erlatibo arruntak eta ez-murrizgarriarentzat *zein* erlatiboak erabiltzen zirela, edo beste hitz batzuetan esateko, interpretazio bakoitzak bere eredua zuela. Aurretik esan bezala, ordea, *zein* izenordainarekin eratutako erlatiboak gaitzetsiak izan ziren, eta horren ondorioz, posible da *-(e)n* erlatiboek irakurketa ez-murrizgarria ere bereganatu izana (Biguri 2020). Hala eta guztiz ere, balio ez-murrizgarria adierazi nahi bada, Garziarentzat (1997) egokiena *zein* —(4) edota (5)— edo *bait*- (6) motako erlatiboak erabiltzea da, nahitaez zentzu ez-murrizgarrian interpretatzen direlako bere ustez eta, beraz, modu horretara egon daitezkeen anbiguotasunak saihestu daitezkeelako.

Aipamenak

Biguri, Koldo. 2020. Perpaus erlatiboan balio semantikoa euskal gramatika-azterlanetan/Semantic

value of relative clauses in Basque grammatical studies. *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 54(1-2), 225-250. Bilbo: UPV/EHU.

Euskaltzaindia. 1999. *Euskal gramatika. Lehen urratsak - V. Mendeko perpausak 1*. Bilbo: Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]

Euskaltzaindia. 2011. *Euskal gramatika. Lehen urratsak VII. Perpaus jokatuabeak*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia. 2021. *Euskararen gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Garzia, Juan. 1997. *Joskera lantegi*. Gasteiz: IVAP.

Goenaga, Patxi. 1980. *Gramatika bideetan*. Donostia: Erein.

Krajewska, Dorota. 2017. *Euskararen sintaxi diakronikorantz: egitura konplexuak*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.

Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]

Lafon, René. 1999. La particule *bait* en basque: ses emplois morphologiques et syntaxiques. In Jean Haritschelhar eta Piarres Charritton (arg.), *Vasconiana*. Iker 11. Bilbao: Euskaltzaindia. 667-693.

Oyharçabal, Beñat. 1983. Euskarazko erlatiboez oharño bat. In Euskaltzaindia (arg.), *Piarres Laffiteri omenaldia*. Iruñea: Aranzadi. 517-528.

Oyharçabal, Beñat. 2003. «Relatives». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.) *A grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 762-823.

Txillardegi and Gotzon Aurrekoetxea. 1987. *Euskal dialektologiaren hastapenak* (2.ed.). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea (UEU).

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.